

SARRERA

Gu LOI enpresaren sortzaileak gara eta gure izenak Laura, Irene, Iradi, Oihane eta Iker dira. Guk aurrera eramango dugun proiektua haurrendako Pikler parkeak sortzea izango da. Haur Hezkuntzako goi-mailako ziklo bat ikasten ari gara eta horrek haurren munduaren inguruko jakintzak eskaini baitizkigu..

Parke hau, Emmi Pikler-en metodologian oinarritzen da, haurren mugimendu librea eta garapen kognitibo-motorea garatzea helburu duena. Gure parkea Emmi Piklerren material eta diseinuarekin sortua dago, eta , 0-3 urteko haurrei zuzendua dago (bezeroak, beraz, haurrendako parkeak muntatzean interesatuta daudenak izango dira (Udaletxeak, gurasoak, haur eskolak...)). Gure helburua adin-tarte horretako haurren beharrak asetzen dituen parke bat sortzea da.